



24.ZIRKULARRA

2020-2021 Denboraldia

Azken jardunaldirako ordutegi bateratua eta finaletan eta horrela eskatzen duten partidetarako zelai neutrala izendatzeko arauak.

Gipuzkoako Futbol Federazioaren Diziiplina Araudiaren 10. e) artikulua arabera, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziiplina eta Lehiaketa Batzordeari dagokio: *"Egun berean jokatu beharreko partidak hasteko ordu uniforme ezartzea, emaitzek sailkapen orokor eta behinbetikoan eragina izan ahal dutenean"*.

Pairatzen ari garen pandemiak eragindako inguruabar bereziak direla-eta, lehiaketa batzuk sortu dira, eta, horietan, igoerako plaza – Halakorik balego – Edo kategoriako txapeldun-titulua, finalen bidez erabakiko dira.

Egoera horretan, federazio honek egiten dituen lehiaketa guztietan edo gehienetan ez da ordutegi uniformerik ezarri behar.

Kasu berezi batean zehaztu behar bada, Lehiaketa Batzordeak berak ezarriko du

Bestalde, aurreko denboraldietan, talde partehartzaileen artean agertzen ziren desadostasunak zirela eta, arazo ugari izan dira denboraldi bukaerako finalak programatzeko orduan. Desadostasun hauek tentsio ugari erakarri zituzten taldeen artean eta, baita, hauen eta Federakundeko organo izapidegilearekin ere. Horrela, Gipuzkoako Futbol Federakundek, Lehiaketa eta Diziiplina Batzordeak esandakoari jarraituz, honako hau adierazten du:

- 1- Gipuzkoako Futbol Federazioko Kirol Lehiaketa eta Disziplinako Batzordeari dagokio zelai neutralean jokatu diren partiden izendapena.
- 2- Zelaiaren aukeraketa eta partidaren eguna eta orduaren izendapena, Federazioko organo teknikoaren gomendioei jarraituz eta, aldi berean, herrien arteko distantzia, instalazioen erabilgarritasuna, eta beharrezko diren beste arazo guztiak kontutan izanda egingo ditu Lehiaketa Batzordeak.
- 3- Izendapen akordio hau, betebeharrezko akordioa izango da eta berehalako balioa izango du. 7 eguneko epea egongo da akordioaren aurkako errekurtsio aurkezteko eta Kirol Justiziako Euskal Batzordera zuzendu. Gorengo Epaitegira egindako errekurtsioaren aurkezpenak, ez du, Epaitegiak kontrakoa esaten ez badu behintzat, izendapenaren bete behartasuna gelditzen.

- 4- Arau hauen bidez izendatutako partidara ez joatea, Euskadiko Futbol Federazioko Disziplina Araudiko 47 artikulua eta Eskola Kiroleko Disziplina arautzen duen 391/2013 Dekretuko 15.J artikulua diotenaren arabera, ez agertze gisa kontsideratuko da.
- 5- Dena den eta guzti hau kontutan izanda, talde biak eta instalazioen titularra akordio batetara iritxiko balira eta akordio hau (hiru parteek sinatutako idatzi baten bidez) Federazioko administraziora partida aurreko ASTELEHENEAN arratsaldeko 8.00 ak baino lehenago iristen bada, akordioa onartua izango da.

Idatzi honek, hartutako erabakiaren betebeharrak berariozko balioa du eta horrela jasota geratzen da.

Donostia, 2023ko martxo

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL



Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General